

## SAN MARKOSEKO MANKOMUNITATEAN BERRERABIL DAITEZKEEN EDALONTZIAK LAGATZEKO EKINTZA-PROTOKOLOA



### Aurkezpena

San Markoseko Mankomunitateak (aurrerantzean SMM), hiri-hondakinak prebenitzeko bere politikari jarraiki, erabili eta botatzeko plastikozko edalontzi-hondakinak murrizteko ekimena abian jarri du. Horiek herriko festetan, ferietan, kultur jardueretan, eskola -jardueretan, enpresa-ekitaldietan... sor daitezke.

Xede horrez, berrerabil daitezkeen plastikozko edalontziak erosi ditu eta Udalen nahiz ekitaldien antolatzaileen esku jartzen ditu.

### Edalontzien ezaugarriak

SMMk bi edalontzi-eredu ditu:

	
<b>Edukia:</b> 380 ml	<b>Edukia:</b> 1.000 ml
<b>Edalontzien neurriak:</b> D72 x d52 x h140 mm	<b>Edalontzien neurriak:</b> D100 x d100 x h150 mm
1 kaxa: 400 unitate	1 kaxa: 45 unitate
<b>Kaxaren neurriak:</b> luzera 60 cm x zabalera 40 cm x altuera 40 cm	<b>Kaxaren neurriak:</b> luzera 60 cm x zabalera 40 cm x altuera 40 cm
<b>Kaxa bakoitzaren gutxi gorabeherako pisua:</b> 20 kg	<b>Kaxa bakoitzaren gutxi gorabeherako pisua:</b> 5 kg

### Edalontziak eska ditzaketen erakundeak

- a- SMMko Udalek.
- b- SMM osatzen duten udalerrietako edozein elkartek, erakundek, ikastetxek, enpresak... edo eremuan ekitaldia antolatu behar duen edonork.
- c- Hiritarrek betiere SMMren udalerrietan bizi badira edo eremuan ekitaldi bat antolatu behar badute.

### Edalontziak erabiltzeko baldintza orokorrak

- 1.- Eskaintzaileak *eskaera-orria* bete beharko du eta posta elektronikoz, faxez edo posta arruntaz bidaliko du SMMra.
- 2.-Edalontziak lagatzen direla baieztatu ostean, SMMk edalontziak erakunde eskatzailearen pertsona arduradunari entregatuko dizkio, horretarako, SMMk erabiltzen duen biltegian: Ugaldetxo poligonoa-Zelaimusu kalea-7. lokala-20180 OIARTZUN; alde zurretik finkatuko dira ordua eta data. Era berean, eskatzaileak toki berdinean itzuliko ditu erabili ondoren.
- 3.- SMMk edalontziak garbiak eta egoera onean lagako ditu.
- 4.- Edalontzi erabiliak eramandako kaxa berean itzuliko dira.



### Baldintza ekonomikoak

5.-Edalontzien erabilera-zerbitzua doakoa da.

6.-Eskatzaileak edalontziko 0,10 €ko fidantza jarri beharko du eta dirua 2101 0005 15 0001388172 kontuan sartuko da, erabili baino gutxienez 15 egun lehenago.

7.- SMM arduratuko da edalontziak industrialki garbitzez. Edalontziak erabiltzen dituen erakundeak bere gain hartu beharko ditu garbiketaren gastuak, baita garraioarenak ere.

8.- Edalontziak hartu eta bueltatzearen ardura eskatzailearena izango da. SMMk edalontzien garraioa antola dezake, betiere eskatzaileak gastuak ordaintzen baditu. Garraiorako tarifak honako hauek dira:

1. taula: edalontziak garraiatzeko erreferentzi tarifak: hartu eta bueltatzea (SMMko udalerrriak)	
10.000 edalontzi	120,00 €
20.000 edalontzi	160,00 €
30.000 edalontzi	200,00 €
30.000 edalontzi baino gehiago	250,00 €

BEZ kanpo

9.- Eskatzaileak edalontzien industri garbiketaren gastuak bere kargura hartuko ditu 2. taulako tarifen arabera

2. taula: edalontzien industri garbiketaren tarifak	
500 edalontzira arte	20,00 €
501 – 1.000 edalontzi	30,00 €
1.000 edalontzi baino gehiago	0,03 €/unitatea

BEZ kanpo

10.- Bueltatutako edalontziak zenbatu ostean, MMSk fidantza itzuliko du eskatzaileak azaldutako kontuan; falta den edalontzi bakoitzeko edo puskatuta dagoen bakoitzeko 1 € deskontatuz. Jarritako fidantzarekin falta diren edalontziei dagokion zenbatekoa osatuko ez balitz, eskatzaileak falta den kopurua sartuko du kontuan. Halaber, edalontzi erabilien garbiketari dagozkion gastuak eskatzaileak ordainduko ditu. Fidantzaren itzulera, edalontzien garbiketa, dagokion enpresari ordaindu zaiola ziurtatu ostean egingo da.

### Informazio-euskarriak

Era berean, SMMk informazio-euskarrien ereduak eskaintzen ditu berrerabil daitezkeen edalontzien erabilera zabaltzeko. Antolatzaileek beren beharretara egokitu ahal izango dituzte, baina betiere finkatutako ildoak errespetatu beharko dira. Euskarri-sortak honako elementuak ditu:

- ✍ Informazio-kartelak  
3 eredu desberdin. Neurriak: 48 x 68 cm (Irudiak)
- ✍ Prentsan jartzeko iragarkiak  
Orrialde osoa (udalerrietako aldizkariak)  
Orrialdearen oina
- ✍ Eskuko programetan jartzeko iragarkia
- ✍ Eskaintzailearen web orrian sartzeko iragarkia



## BERRERABIL DAITEZKEEN EDALONTZIAK ESKATZEKO FITXA

Erakundearen izena:.....  
Erakundearen jardura:.....

Izaera:

- Herri-erakundea  Ikastetxea  
 Auzo-elkartea  Partikularra  
 Irabazi-asmorik gabeko elkartea  Bestelakoa: .....

Harremanetarako pertsona:

Tel. finkoa:

Helbidea:

Tel. mugikorra:

Udalerria:

e-maila:

Edalontziak erabiliko diren ekitaldia: .....

Zer egunetan erabiliko dira?.....

Antolakuntzak berrerabil daitezkeen edalontziak bakarrik erabiltzeko konpromisoa hartzen du.

380 ml-ko EDALONTZIEN KOPURUA:

1.000 ml-ko EDALONTZIEN KOPURUA:

ESKATUTAKO EDALONTZIAK GUZTIRA:

FIDANTZA BEZALA SARTU BEHARREKO DIRU-KOPURUA (erabiltze-data baino gutxienez 15 egun lehenago):

0,10 €edalontzi X ..... edalontzi = ..... €

K.K.: 2101 0005 15 0001388172 (zehaztu ordainketaren "kontzeptua"-n taldearen izena, udalerria eta "EDALONTZIA" hitza)

EDALONTZIAK BILTZEA

Edalontziak biltzeko eguna:

Ordutegia:

Merkantzia jasotzeko pertsona arduraduna:

Tel.:

EDALONTZIAK ITZULTZEA

Edalontziak bueltatzeko eguna:

Ordutegia:

Merkantzia entregatzearen pertsona arduraduna:

Tel.:

Oharrak:

Dokumentu honetan antolaketak jarritako baldintzak irakurri ditut eta betetzeko konpromisoa hartzen dut.

Eskaeraren data:

Sinadura:

Nori bidali eskaera?

e-maila: [msanmarcos@udal.gipuzkoa.net](mailto:msanmarcos@udal.gipuzkoa.net) Faxa: 943 21 89 83

Informazio-telefonoa: 943 21 49 77